



LAIA eskola

Arabako emakumeon jabeakuntzarako eta berdintasunerako eskola

Arabako Lautadako Kuadrilla

2020/2021

www.laiaeskola.eus



LAI Aeskola Lautada

Informazioa, kontaktua eta izen-emateak:

Arabako Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua:

☎ 945 30 12 00

✉ berdintasun@arabakolautada.eus

📍 Plaza Senda de Langarika, 4. 01200 Salvatierra-Agurain, Araba




www www.arabakolautada.eus

Inskripzioa daukaten jardueren izen-emate epea: ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

Hautzaindegi eta garraio zerbitzua: ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

Eguneratuta egon zaitezten, eman izena **hileroko buletin digitalean** web orriaren bidez! Ekintza, baliabide, gaurkotasan zein berritasunen inguruko informazioa jasoko duzu.

Aurrez aurreko jarduerak COVID-19aren aurkako jarduera -protokoloak gomendatutako prebentzio-, segurtasun- eta higiene-neurriak betez egingo dira beti.



#LAI AeskolaLautada



Liburuxka
deskargatzeko:



LAI Aeskolako Idazkaritza teknikoak: Berdintasun Proiektuak, S. Coop www.berdintasun.org
Azala eta ilustrazioa: Higi Vandis www.higinia.com
Diseinua eta maketazioa: La Debacle www.ladebacle.com
Inprimatzailea: Arabako Foru Aldundia
L.G.: LG G 00485-2020

Aurkibidea

LAI Aeskola Arabako Lautada	5
Arabako Lautadako II. Berdintasun Plana	6
Parte-hartze espazioak	7
LAI Aeskolaren programaren aurkezpena eta Arabako Lautadako Berdintasunaren aldeko Eskualde Topaketa: Hirigintza genero ikuspegi intersektionalarekin	8
Lantegia: Arabako Kontzejuetako emakumeentzako coaching eta lidergoa	10
“Ordu bioleta” Irakurle-Klub Feminista gaztelaniaz	11
Diseinatu dezagun berdintasunerako eta indarkeria matxisten aurkako patio bat	12
Berdintasunaren aldeko ipuin laburren V. lehiaketa	13
Hitzak ez baititu haizeak eramaten... Gaztelaniaren erabilera ez-sexistak	14
Memoria Eraikiz. Indarkeria matxisten biktima eta biziraun duten emakumeen ahotsak biltzen dituen ikuskizuna	16
Aske nahi gara. Indarkeria matxisten aurkako kanpaina diseinatzea	17
Jolas Hezkideen XI. Jaialdia	18
Lantegia: Autodefentsa feminista	19
Lantegia: Feminismoak krisi garaian. Soluzioak baino ez ditugu bistaratzen!	20
Lantegia: Barre egin zure buruarekin, zure pailazoarekin	21
Lantegia: Hizkuntzaren erabilera ez-sexistak familian	22
Lantegia: Non daude zapalketak eta pribilegioak? Gazteen kolektibotik begirada bat	23
Menopausia: nire barrenak entzunez	24
Txoko morea Ludotekan	25
Lantegia: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko zertzeladak	26
Nerea Barjolarekin solasean: “Boterearen mikrofisika sexista: Alcàsser kasua eta sexu-izuaeren erainkuntza”	27
Lantegia: Maskulinitate berriak Arabako Lautadako gazteen artean	28
Indarkeria matxisten kontrako martxa Barrundiatik	29
Bideoklipa: “Bakarrik taberna batean”	30
Lantegia: Indarkeria matxista sareetan	31
Antzerkia: “Gel de lucha”	32
Erakusketa: argazki-proiektua. Ikusgai, berdintasunaren alde!	33
Antzerkia: “Ovarios verdes fritos”	34
#LAIABirtuala	35

ELBURGO - BURGELU

BARRUNDIA

SAN MILLÁN - DONEMILIAGA


ASPÁRRENA

ZALDUONDO

SALVATIERRA - AGURAIN

ALEGRÍA - DULANTZI

IRURAIZ - GAUNA



LAI Aeskola Arabako Lautada

LAI Aeskolak, Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako Eskolak, agur bero bat eman nahi dizue berriro, eta ongi etorri gure programazioaren bosgarren edizio honetara (2020-2021). Añana, Aiara, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea, Arabako Lautada eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrilletan zehar hedatzen da proiektua, eta Trebiñuko Enklaberaino iristen da.

Edizio hau bitxia izango dela aurreikusten dugu, eta une zail batean garatzeko erronka izango dugula, zalantza eta ziurgabetasun askorekin, baina baita ikaskuntza askorekin ere, konfinamendu batetik atera ondoren.

Pandemia horretan, LAI Aeskolak zuekin jarraitu nahi izan du, horretarako espazio birtual bat sortuz: LAI Aplazara. Topagune berri bat, Arabako Foru Aldundiak eta Kuadrilletako eta Probintziako Udaletako Berdintasun Teknikarien Sareak sustatuta, ukitu gabe, elkartu gabe eta urrutitik elkar lagundu eta zaindu ahal izateko, “plaza” birtual bat sortzeko.

“Plaza” berri honen helburua Arabako herritarrek eta, bereziki, emakumeek protagonismoa izaten jarraitzea da. Izan ere, hori da LAIA proiektuaren apustua, berritzailea, irekia eta, batez ere, parte-hartzailea izatea: hurbilago egoteko eta mundu osoko emakume gehiagorekin partekatzeko gune birtuala eskaintzea, Arabako gure plazetako jardueren eta ekintzen hurbiltasunari eutsiz.

Orain gure herrietako kale eta plaza fisikoetan elkar ikustea espero eta nahi dugu, horregatik gure espazio birtualean, **LAI Aplazara** honetan eta asmatuko ditugun beste espazio batzuetan, biltzen jarraitzeari uko egin gabe.

Ongi etorri!!

Arabako Lautadako II. Berdintasun Plana

Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua 2019an hasi zen Kuadrillako I. Berdintasun Plana ebaluatzeko prozesua eta Arabako Lautadako II. Berdintasun Plana modu parte-hartzailean egiten. Bi prozesu horietan kontuan hartu ziren Berdintasunaren Kontseiluaren eta eskualdeko gizarte-sarearen ekarpenak osatzen dituzten zortzi udalerrien errealitatea, bai eta Udaletako eta Kuadrillako teknikarien ekarpenak ere.

Horri guztiari esker, eskualdeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana modu bateratu eta parte-hartzailean egin ahal izan da. Lautadako Kuadrillako Batzarrak aho batez onartu du, eta orain Udal bakoitzean berretsi behar da. Hau izango da Lautadako berdintasun-politika publikoek datozen 4 urteetan markatuko duten ibilbide-orria, eta hau da erronka nagusia: bai emakumeak baita gizonak ere, maila guztietan, politiko, tekniko eta herritarrok gure egin dezagun Plana eta inplikatu gaitezen abian jartzen.

Plan hau funtsezko tresna bihurtu behar da gure erakundeen barruan lan egiteko, “Gobernu ona” izeneko lan-ildoaren bidez eta hiru lan-ardatzak garatuz:

- **Emakumeen jabekuntza**
- **Baliabideak eta zainketak banatzea, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarriz**
- **Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak, Giza Eskubideen ikuspegitik**, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Erakundearen arteko Laguntza eta Koordinaziorako **II. Jarduera Protokoloa** garatuz.

Konpromiso hau auzokide guztiok ezagutuko duzue, zuen etxeetan banatuko dizuegun laburpen-liburuxkaren bidez, hurrengo lau urteetako erronka nagusiak ezagutu ditzazuen.

Parte-hartze espazioak

Kuadrillaren esparruan

- Kuadrillan **Berdintasun Kontseilua** dugu, kontsulta-, informazio- eta aholkularitza-izaerako partaidetzako organo goren. Jarduera-eremua eskualdekoa da, eta hileko hirugarren ostiraletan biltzen da, 17:15ean, Arabako Lautadako Kuadrillaren egoitzan.
- Eta **“Lautadako Puskaterak”** kolektiboa sortu dugu, eztabaidak eta topaketak sustatzeko asmoz.

Tokiko foroak

- | | |
|----------------------|--|
| Agurain | Udalaren eta elkarten arteko etengabeko koordinazioa, bereziki Sallurtegui emakumeen elkartearena, M-8ko eta A-25eko programazioetarako eta ALAI elkartearekin, berdintasun-, migrazio- eta arrazismo-gaiak lantzeko |
| Dulantzi | 2019an Dulantziko Talde Feminista sortu da, batez ere, emakume gazteez osatuakoa, hauekin ekin zitzaion iaz udal jarduera eta politikak planifikatzeari |
| Asparrena | Emakumeen talde eragile bat eratu da, udaletako berdintasun-politiketan eragiteko foro plural bat osatzea helburu duena |
| Barrundia | Barrundiako Feministok udalerrri honetan berdintasun-politikak bultzatzen dituen kolektiboa da. Kontseiluan ere parte hartzen dute |
| Donemiliaga | Donemiliagako Emakume Feministak , udalerrria osatzen duten hamabost herri gehienetako emakumeek parte hartzen duten mugimendu anitza. |
| Burgelu | ARGIA elkarteak berdintasunaren aldeko ekintzen eta ekimenen ibilbide garrantzitsua du. Kontseiluan ere parte hartzen dute |
| Iruraiz-Gauna | Xtalotu egiten dugu udalerrri honetan berdintasunaren aldeko ekimenetan erreferentzia den AMALUR , Mujeres de Iruraiz-Gauna/Iruraiz-Gunako Emakumeak emakume-taldea sortu izana 2020an. |
| Zalduondo | Zalduondoko emakume eta gizonek aktiboki parte hartzen dute udalerrri honetako jardueren koordinazioan. Kontseiluko kide ere badira. |

LAI Aeskolaren programaren aurkezpena eta Arabako Lautadako berdintasunaren aldeko Eskualde Topaketa: Hirigintza genero ikuspegi intersektionalarekin

Arabako Lautadako Berdintasunerako Kontseilua

Consejo para la igualdad de la Llanada Alavesa

Topaketa honetan, genero-ikuspegia duten hirigintzako

esperientzietan sakonduko dugu, emakumeek gure hirigintza-espazioaren eraikitzaile gisa duten eginkizuna ikusaraziz. Hori guztia parte-hartze prozesu komunitario baten bidez egingo da, espazioen diseinua, kudeaketa eta erabilera modu kolektiboan birpentsatzeko.

Jardunaldiaren egitaraua:

10:00 – 10:15:

- Udaletxera ongietorria eta bertaratutakoen aurkezpena: **Nati López de Munain**, Burgeluko alkatea.
- LAI Aeskolaren aurkezpena: **Nerea Melgosa**, Arabako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Berdintasunaren zuzendaria.
- Lanaldiaren aurkezpena: **Ruben Ruiz de Eguino**, Kuadrillako presidentea.
- Col · lectiu Punt 6-en aurkezpena: **Berdintasun Kontseilua**.

10:15 – 12:00:

- **Hirigintza feminista: genero-irizpideak eguneroko espazioen diseinuan eta planifikazioan**, Blanca Valdivia, hiri-soziologoa eta Adriana Ciocoletto, arkitektoa eta hirigileak, **Col-lectiu Punt 6**
- **Hirigintza feminista baterako praktikak eta esperientziak**, Roser Casanoves eta Marta Fonseca arkitektoak eta hirigileak, **Col-lectiu Punt 6**

12:00 – 12:30: Atsedena eta hamaiketakoa

12:30 – 13:00: “Hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko gida. Arabako Foru Aldundia”ren aurkezpena

13:00 – 14:30: Aldibereko lantegi tematikoak: nola aplikatu deza-kegu genero-ikuspegia hirigintzaren eta hiri- eta lurralde-plangintzaren eremu ezberdinetan? Lan egiteko talde banaketa: Mugikortasuna / Eremu publikoak / Ekipamenduak / Etxebizitza

14:30 – 15:00: Lantegien **ondorioak**

15:00 – 17:00: Herri bazkaria **ARGIA** elkar-tearen eskutik

17:00 – 19:00: Jane-ren ibilbideak: genero ikuspegia duen ibilbidea udalerrian zehar. Ibilbidean lan egiteko 7 mugarri proposatu dira: Landederra kiroldegia - helduen komunitate-baratzea – garbitegia - udal zaharra eta bolatokia - udal berria eta ARGIA elkar-tearen egoitza - Landederra kiroldegia eta kanpaiak.

Dinamizazioa: **Adriana Ciocoletto, Blanca Valdivia, Roser Casanovas** eta **Marta Fonseca Col-lectiu Punt 6**-ko partaideak. Kolektibo horrek arkitektura eta hirigintza lantzen ditu generoaren, intersektionalitatearen, iraunkortasunaren eta parte-hartzearen ikuspegitik

Data eta ordua: **2020ko urriak 17**
larunbata 10:00etatik 15:00etara eta
17:00etatik 19:00etara

Tokia: Landederra kiroldegia, Burgelu

Norentzat: Herritarrek

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseilua Burgeluko Udala Arabako Foru Aldundia

Informazio: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia: Arabako Kontzejue- tako emakumeentzako coaching eta lidergoa



Bazenekien kontzejuetako emakume hautetsiak kargu hautetsi guztien **% 24,6** baino ez direla? LAIA eskolan berdintasunezko parte-hartze soziopolitikoak sustatzen jarraitzen du bi tailer berriekin. **Oraindik garaiz zabilta honetan izena emateko!** Lidergorako, komunikaziorako eta jarduera publikoan parte hartze-ko estrategietan trebatuko gara.

Lantegiaren modalitatea zehaztuko da, online edo aurrez aurre, taldearen lehentasunen arabera.

Formatzailea: Maru Sarasola, coaching- eta lidergoan aditua

Data eta ordua: **2020ko azaroak 16, 23 eta 30 eta abenduak 9, 14 eta 21**
16:30etik 18:30era

Tokia: Lekua izena eman duten emakumeekin adostuko da
(lantegia online egiteko aukera baloratuko da)

Norentzat: Arabako 334 kontzejuetako batean parte hartzen duten emakumeak... edo parte hartu nahi duten emakumeak!

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak Arabako Kontzejuen Elkarte (AKE)
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: Telefonoa: 945 28 17 70
info@acoa-ake.org
inskripzioak@lailaeskola.eus
www.lailaeskola.eus

“Ordu bioleta” Irakurle-Klub Feminista gaztelaniaz

Irakurle-Klub Feminista topaketa, hausnarketa eta eztabaidarako espazio bat da, non adin, formakuntza, maila, lanbide, bizimodu... ezberdinetako emakumeak batzen garen feminismoaz hitz egiteko.

Eleberriak, saiakerak, iritzi artikuluak, poesia... irakurriko dugu eta liburuetako edukiari buruzko norberaren iritzia besteenekin osatuko dugu.

Esperientziak partekatzeko eta feminismoaz ikasteko baliagarria ere izango zaigu. Klub hau jabeakuntzarako eta norbera aberasteko benetako espazioa da guretzat.

Eta are gehiago, ondo baino hobeto pasatzen dugu.

Koordinatzailea: **Begoña Etayo**, genero berdintasunean eta garapenerako lankidetzan aditua. María de Maeztu Forum Feministako kidea

Data eta ordua: AURKEZPENA:

2020ko urriak 19

astelehena 18:00etatik 20:00etara

Hileko hirugarren astelehena, ordu berean

Tokia: Aurkezpena Aguraingo Liburutegian
Hurrengo tokiak lehen saiora hurbiltzen diren emakumeekin batera erabakiko dira

Norentzat: Emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Arabako Lautadako Udalak
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: Gehienezko leku kopurua: 20
www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Diseinatu dezagun berdintasunerako eta indarkeria matxisten aurkako patio bat



Agurain, Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga, Burgelu eta Zalduondoko Udalek sustatua

Haurrek eta gazteek eskoletako jolastokietan ematen dituzten orduak zenbatzen baditugu, ikusiko dugu beren bizitzaren zati handi bat betetzen dutela. Haurrek eta gazteek jolasaren bidez ikasten dute jokabideak imitatzen eta ingurunean moldatzen. Jolasa errealitatearen irudikapen bat da, inguratzen gaituen eta pertsona helduen mundua nolakoa den ikasteko mekanismo bat.

Esperientzia honen bidez, parte hartzeko prozesu zabal bat jarri dugu abian, eskola-komunitate osoaren inplikazioa bilatuz, espazio horiek eraldatu eta ohitura baztertzailak aldatzeko.

Dinamizazioa: **Zuriñe Burgoa Comución:** arkitektoa eta Berdintasun Teknikaria

Data eta ordua: **2020ko urtarriletik irailera**

Tokia: Araia Herri eskola; Alegría Dulantzi HH y LHI; Lope de Larrea HH eta LHI; Lautada Ikastola HH, LHI, DBH; Aniturri institutua DBH eta Batxilergoa


Norentzat: Ikastetxe hauetako hezkuntza komunitateak: Araia Herri eskola; Lope de Larrea HH eta LHI; Alegría-Dulantzi HH y LHI; Lautada Ikastola HH, LHI, DBH; Aniturri Institutua DBH eta Batxilergoa

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua; Aguraingo, Asparrenko, Dulantziko, Barrundiko, Donemiliagako, Burgeluko eta Zalduondoko Udalak; Emakumearen Ministerioa / Genero-indarkeriaren aurkako Estatu-ituna; Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Araia Herri eskola; Lope de Larrea HH eta LHI; Alegría Dulantzi HH y LHI; Lautada Ikastola HH, LHI, DBH; Aniturri Institutua DBH eta Batxilergoa
www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua:
945 30 12 00 / berdintasun@arabakolautada.eus

Berdintasunaren aldeko ipuin laburren V. lehiaketa



Lehiaketak helburu bikoitza du: baitetik, sormen literarioa sustatzea, sormena eta irudimena bultzatzea, eta, bestetik, herritarrak sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde.

Estereotipatu gabeko eta rol tradizionaletatik urruntzen diren emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko kontakizunak baloratuko ditugu. Kontakizun irabazleek sari bat jasoko dute eta jendaurrean irakurriko dira, azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz.

Data eta ordua: Irailetik azarora

Ipuin irabazleen irakurketa eta sari-banaketa azaroaren 20an (ostirala), 18:15ean, Aguraingo udaletxean

Tokia: Agurain

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Aguraingo Udala
Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua

Informazio +: Hiru kategoria: haurrak/gazteak eta helduak euskaraz eta gaztelaniaz
www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Hitzak ez baititu haizeak eramaten... Gaztelaniaren erabilera ez-sexistak



Donemiliagako emakume feministak

Hizkuntza baztertzailerik, balio-galtzailerik eta emakumeentzako diskriminatzaileak erabiltzeak pertsona guztientzat dituen ondorioei buruz hausnartzeko

gune bat ireki nahi dugu. Era berean, jarduera horietan parte hartzen dutenei idatzizko eta ahozko hizkeran erabilera sexistak eta androzentrikoak hautematea ahalbidetuko duten tresnak ematea, batetik, eta, bestetik, modu horiek diskriminatzaileak ez diren beste batzuekin ordezkatzeko nahi dugu. Era berean, hizkuntzaren erabilera aldatzeko beharraz sentsibilizatzea, berdintasuneko jendarte integratzaile baterantz aurrera egiteko.

Donemiliagako Udala

Dinamizatzailea: **Teresa Meana Suarez**, Espainiako aktibista feminista, irakaslea eta hizkuntza inklusiboan eta ez-sexistan aditua den filologoa.

Data eta ordua: **2020ko irailak 23**

asteazkena 18:30ean

Tokia: Donemiliagako udala

Norentzat: Herritarrak eta liberatu gabeko politikariak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua
Donemiliagako Udala
Donemiliagako Emakume Feministak
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez

945 30 12 00

berdintasun@arabakolautada.eus

Kuadrilla

Hezitzailea: **Teresa Meana Suarez**, Espainiako aktibista feminista, irakaslea eta hizkuntza inklusiboan eta ez-sexistan aditua den filologoa.

Data eta ordua: **2020ko irailak 24**
osteguna 12:00etan

Tokia: Arabako Lautadako Kuadrila

Norentzat: Arabako Lautadako eta hura osatzen duten 8 udaletako teknikariak eta politikariak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus



Haizeak ez dituelako hitzak eramaten, hizkuntza eta sexismoa

Porque las palabras no se las lleve el viento, lengua eta seximoa

Memoria Eraikiz.

Indarkeria matxisten biktima eta biziraun duten emakumeen ahotsak biltzen dituen ikuskizuna



MEMORIA ERAIKIZ ikuskizunak, diziplina anitzeko instalazio artistiko baten bidez, **“Flores en el Asfalto. Indarkeria matxisten kausak eta eraginak indarkeria matxisten biktima eta biziraun duten emakumeen bizitzan”** izeneko ikerketan bildutako zenbait bitzitza-historia zabaltzea du helburu.

Emakume hauen kontakizunek indarkeria beren bizitzetan izan dituzten inpaktuak azaltzen dituzte, bai eta nola aurre egin dieten ere. Eta ingurunetik eta jendartetik zer espero duten jakingo dugu.

Ezinbestekoa da hainbat indarkeria bizi izan dituzten emakumeen ahotsak gure memoria kolektiboan integratzea, indarkeria matxistei berriro eragiten laguntzeko eta, horrela, jendartearen iruditeria aldatzeko. Indarkeria horien egungo ikusezintasunak, erruduntasunak eta biktima diren emakumeei ezarritako isiltasunak beharrezkoa egiten dute indarkeria matxisten biktima eta biziraun duten emakumeen memoria berreskuratzea Egjaren, Justiziaren eta Erreparazioaren bila.

Dinamizazioa: Mugarik Gabe

Data eta ordua: 2020ko irailak 25

Goizez, Aniturri Institutuko ikasleekin
Arratsaldez, 3 emanaldi: 17:00, 18:00 eta 19:00

Tokia: Musika Eskola, Zapatari Kalea 33, Agurain

Norentzat: Aniturri institutuko gazteak
Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Aguraingo Udala
Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua
Arabako Foru Aldundia

Informazio +: leire@mugarikgabe.org
www.lajaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Aske nahi gara.

Indarkeria matxisten aurkako kanpaina diseinatzea



Dulantziko mugimendu feministak bi lan-tegi gauzatuko ditu Irantzu Lekue artista gasteiztarrarekin, indarkeria matxisten aurkako kanpaina bat diseinatzeko.

Dinamizazioa: **Irantzu Lekue**, artista feminista eta kultura-ekintzailea

Data eta ordua: **2020ko irailak 25 eta urriak 2**
ostiralak 18:30etik 20:30era

Tokia: Kultur Etxea, Dulantzi

Norentzat: Dulantziko Talde Feminista, udalerriko eta Arabako Lautadako emakumeak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Dulantziko Talde Feminista
Dulantziko Udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Informazio + eta inskripzioak: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Jolas Hezkideen XI. Jaialdia



Jaialdiak aisialdirako gune ez-sexista sortzea du helburu, non pertsona guztiek berdintasunez eta inolako diskriminazio sexistarik gabe parte hartu ahal izango duten. Jolasak, mailleguko ludoteka eta euskarazko jolas gunea aurkeztuko dira, eta haurrentzako jolastoki bat jarriko da txikiarentzat.

Dinamizazioa: ARGIA emakume taldea

Data eta ordua: **2020ko irailak 26 eta 27**

larunbata eta igandea 10:00etatik 14:00etara
eta 16:00etatik 20:00etara

Tokia: Landederra polikiroldegia, Burgelu

Norentzat: Familiak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: ARGIA Emakume Taldea
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Burgeluko Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea, baimendutako lekua bete arte
www.lajieskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia: Autodefentsa feminista



Autodefentsa Feminista jarrera matxistak identifikatu eta haiei aurre egiteko tresna bat dira. Defentsa pertsonala baino askoz gehiago dira. Eraso egoeretan emakume gisa bizitako esperientziak partekatzeko espazioak dira, elkarri entzuteko eta beldur eta emozioei buruz hitz egiteko, bizi izandako lantzeko eta jabekuntzaren bidez indarkeriari aurre egiteko estrategiez eta teknikez horni gaitzen.

Hezitzailea: ADF Femista

Data eta ordua: 2020ko urriak 3

larunbata 10:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 20:00etara

Tokia: Burgeluko udaletxea

Norentzat: 16 urtetik gorako emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – ARGIA emakume taldea

kolaboratzaileak: Burgeluko Udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Informazio + eta www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare

inskripzioak: sozialak eta karteldegien bidez

945 30 12 00

berdintasun@arabakolautada.eus



Lantegia: Feminismoak krisi garaian. Soluzioak baino ez ditugu bistaritzen!



Mugimendu feministak indartzen jarraitzen du hetero patriarkatuari, androzentrisismoari, neoliberalismoari, arrazakeriari, zibilizazio-krisiari eta emakumeen, lesbianen eta transen zapalkuntza eta bazterkeria modu anitzei esker, maila lokalean eta globalean. Baita kritikari eta hausnarketari esker ere, mugimenduaren beraren barruan. Elkar ezagutzeko, esperientziak trukatzeko, eztabaidatzeko eta jarduteko gune bat!

Hezitzailea: **Gladys Giraldo**, ekintzaile feminista internazionalista

Data eta ordua: **2020ko urriak 15**
osteguna 18:30ean

Tokia: Zabalarte aretoa, Agurain

Norentzat: Herritarrak eta, bereziki, politikariak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Aguraingo Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia: Barre egin zure buruarekin, zure pailazoarekin



*Zure umorea sustatu nahi duzu?
Zeure alde jostagarria, eroa, xaloa eta kar-
tsua ezagutu nahi duzu?
Esperientzia liluragarri bat bizi nahi duzu?
Zeure pertsonaiarik onena ezagutu nahi duzu?
Zugandik onena atera nahi duzu: barne-bul-
kada, sentiberatasuna, konplizitatea?*
Hau da zure ikastaroa... Barre egin!



Libre sentitzeko gune bat, aurrejuzguetatik aske. Han nahi duzun moduan agertu zaitezen, eta geure komikotasuna elkarrekin deskubritu dezagun. Clown dinamikak landuko dira, jolasen bidez geure gorputzarekin konektatuko dugu, geure emozioekin, geure ametsekin... eta besteak entzuten erakutsiko digute. Eszenako jolasak eta inprobisazioak egingo ditugu, objektuak eta musika erabiliz.

Hezitzailea: **Bea Larrañaga**, Intujai Teatro

Data eta ordua: **2020ko urriak 18**
igandea 10:00etatik 14:00etara

Tokia: Barrundiako udaletxea

Norentzat: Emakumeak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Barrundiako Udala
Barrundiako Feministok
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.lajieskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00 / berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia: Hizkuntzaren erabilera ez-sexistak familian

Jarduera hau bi zatitan banatzen da. Lehenengo zatian, familiek hartuko dute parte. Hizkuntza eta istorioak jorrazteko modua hartuko dira kontuan, hain bortitzak ez izateko, paper eta rol sexistak kenduz. Lehenetsuna emango zaio txikien taldeari parte har dezan. Horrela, oso ondo etorriko zaigu geroz familiek harritu dituen horri buruz hausnartzea.

Bigarren zatian, helduekin bakarrik egingo da lana. Ipuinak aldatzeko esperientziatik abiatuko gara, hitz egiten berriz ikastearen garrantziaz hausnartuko dugu, apurka modu ez-sexistan pentsatzen lagun diezagun. Gainera, familiei hizkuntza ez-sexista pixkanaka lantzeko informazioa emango zaie.

Hezitzailea: Maite Ortega Zubikarai, ALARA

Data eta ordua: **2020ko urriak 22**
osteguna 18:15etik 19:15era

Tokia: Landederra ludooteka, Burgelu

Norentzat: Familiak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Burgeluko Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia: Non daude zapalketak eta pribilegioak?

Gazteen kolektibotik begirada bat

Lantegi hau bertako eta migratzaile/arrazializatutako gazteei zuzenduta dago. Metodologia ludikoen eta parte hartzeko metodologiaren bidez pentsamendu feminista antirrazistaren eta dekolonistaren pedagogiara hurbiltzen saiatuko gara, elkarrekin eraiki ahal izateko elementuak eta baliabideak, eguneroko bizitzan opresioak nola mantentzen, adierazten eta gauzatzen diren identifikatzeko, eta, hartara, pentsamendua sortu eta afinatzen duten zenbait tresna kritiko izateko.

Hezitzailea: **Susana Leyton Camardelli**, soziologoa, aktibista feminista

Data eta ordua: **2020ko urriak 23**
ostirala 18:00etan

Tokia: Asparrenako Gaztelekua


Norentzat: Gazteak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Asparrenako Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Menopausia: nire barrenak entzunez



Klimaterioa menopausia aurreko eta osteko urteetan ematen den iragate garaia da eta estrogenoen ekoizpenean ematen diren aldaketei loturik dago. Aldaketa hauek maila fisikoan zein emozionalean adieraziko dira. Hauek ezagutu eta gure bizipen eta harremanetan duten eraginaz ohartzeak, gutako bakoitzak garai hau modu positibo eta asegarrian bititzea baimenduko du.

Hezitzailea: EMAIZE, Sexologia Zentroa

Data eta ordua: **2020ko urriak 27**
asteartea 17:00etatik 19:00etara

Tokia: Lanturri Gizarte eta Kultur Etxea. Azilu

Norentzat: Emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Iruraitz-Gaunako Udala
Iruraitz-Gaunako emkaumeen elkarte
AMALUR - Emakumeak mugimenduan
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Txoko morea Ludotekan

Asparrenako ludotekak liburu berriak jarriko ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Haurrei zuzendutako titulu berri horien bidez, berdintasunaren inguruko hausnarketa sustatu nahi da, literaturaren bidez. Horretarako, Txoko Morea sortuko da ludotekan.

Dinamizazioa: Asparrenako liburutegia

Data eta ordua: 2020ko urria

Tokia: Asparrena

Norentzat: Haurrak


Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Asparrenako Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus



Lantegia: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko zertzeladak



Lantegi honen helburuak genero-teoriari buruzko oinarrizko ezagutzak ematea, feminismoa emakumeen eta gizonen ongizaterako elementu teoriko eta politiko gisa ezagutaraztea, eta emakumeen eta gizonen jabe-kuntzan eragiteko dauden baliabideak ezagutzea dira, alderdi pertsonalak eta sozialak landuz. Hori guztia parte-hartze aktiboko metodologia erabiliz, parte hartzea errazten duten eta norberaren baliabideak ezagutzea sustatzen duten teknikak erabiliz.

Hezitzailea: **Miriam Ocio Sáenz de Buruaga**, psikologoa eta komunikazioan eta generoan aditua

Data eta ordua: **2020ko azaroak 14**
larunbata 10:30etik 13:30era

Tokia: Lanturri Gizarte eta Kultur Etxea, Azilu

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Iruraitz-Gaunako emkaumeen elkarte
AMALUR - Emakumeak mugimenduan
Iruraiz-Gaunako Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.lajieskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Nerea Barjolarekin solasean: “Boterearen mikrofisika sexista: Alcàsser kasua eta sexu-izuaren erainkuntza”



Sexu-arriskuari buruzko kontakizunak sexu-indarkeria komunikatzeko, sortzeko eta ugaltzeko modu zehatzak dira. Nerea Barjola Alcàsser kasua ezaguneko nesken hilketaren kasu zehatzetik abiatu da, boterearen mikrofisika sexista deritzonaren funtzionamenduari buruzko planteamendu orokorra egiteko.

Hizlaria: **Nerea Barjola**, militante feminista, Generoa eta Feminismoetan doktorea da EHU, eta Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziaduna

Data eta ordua: **2020ko azaroak 19**
osteguna 18:30ean

Tokia: Zabalate aretoa, Agurain

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Aguraingo Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea, baimendutako lekua bete arte
www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia: Maskulinitate berriak Arabako Lautadako gazteen artean



Gazteak Berdintasunean 2.0 lantegia, Emakunderen Gizonduz programaren barruan kokatzen da. Saioen helburua izango da, teknologia berrien bidez, nerabeak eta gazteak, bereziki mutilak, kontzientziatzea eta inplikatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka, eta gatazkak ebazteko indarkeriarik gabeko jarrerari balioa ematea.

Dinamizazioa: **GIZONDUZ**, Eusko Jaurlaritzaren ekimena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatuta, gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko kontzientziazioa, parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko

Data eta ordua: **2020ko azaroak 24 eta 25**
astearte eta asteazkena 9:25etik 11:35era eta 11:45etik 13:35era

Tokia: Aniturri Institutua

Norentzat: Aniturri Institutuaren ikasleak

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundea

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Indarkeria matxisten kontrako martxa Barrundiatik



Badira urte batzuk Barrundiako feministak antolatu ginela Barrundiako udalerrian indarkeria matxistaren aurkako martxa bat egiteko.

Data eta ordua: **2020ko azaroak 25**
asteazkena arratsaldean

Tokia: Gebaratik irtengo da

Norentzat: Herritarrak


Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Barrundiako Feministok

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus



Bideoklipa: “Bakarrik taberna batean”



Adierazgarria da, emakumeok bezala, badakigula zertaz ari garen, izutu gaituzten begiradez hitz egiterakoan, ez bakarrik espazio itxietan, batzuk gure inguruetik oso hurbil, baita leku publikoetan edo, gaueko giroetan ere, edo eguneko argitan, espazioetan, jende gehiago edo gutxiago dagoenean, gaiak elkarriketari bide ematen diola, zeren, denok baititugu, tamalez, horren inguruko pasadizoak.

Gai horri dagokionez, emakumez soilik osatutako talde baten egindako bideoklip bat sortzea planteatu da, Belen Nevadoren jatorrizko ideiatik abiatuta, eta “LA SETA PASOTE” rock taldeko kideek taularatzea:

Dinamizazioa: **Belén Nevado** de Detritus Teatro eta **Zuriñe López de Sabando**

Prozesu parte-hartzailea: Emakumeei zuzendutako *casting* batetik eta lantegi-entsegu batetik abiatuta, bideokliparen grabazioarekin amaituko da eta A25aren inguruan aurkeztuko da.

Data eta ordua: AURKEZPENA:
2020ko azaroaren 25aren inguruan

Tokia: Agurain

Norentzat: Herritar guztiei, bereziki gazteei

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Arabako Foru Aldundia
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Lantegia: Indarkeria matxista sareetan



Lantegiaren helburua (ziber)indarkeria sexistan eta hezkidetzako proposamenetan trebatzea da. Horretarako, hainbat kanaletan gertatzen den sexismoa eta matxismoa identifikatu behar dira, hala nola YouTube, bideojokoak eta sare sozialak; maitasun erromantikoaren mitekin eta teknologiekin (ziberkontrola) zerikusia duten portarazal zalantzan jarri; ziberindarkeria matxisten formak ikusarazi eta plataforma digitaletan gertatzen diren errealitate desberdinak eta alternatibak aurkeztu. Hori guztia metodologia parte-hartzaile eta gogoetatsu baten bidez egingo da, kasu praktikoekin, detekzio goiztiarrerako tresnak emanez eta ziberjazarpen mota horiekin lan egiteko jarraibideak landuz.

Hezitzailea: **Sormena Aholkularitza**, indarkeria matxistan aditua den aholkularia kanal digitalen, hezkidetzaren eta nerabeekin egindako prebentzio-ekintzen barruan

Data eta ordua: **2020ko azaroak 28**
larunbata 17:30ean

Tokia: Maturanako Gizarte Etxea

Norentzat: Familiak eta gazteak

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Barrundiako Feministok
Barrundiako Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio + eta inskripzioak: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Antzerkia: “Gel de lucha”



Aspertuta zaude zure bizitza estal-tzen duten ohiko topikoekin? Aspertuta zaude betiko txisteak entzuteaz, emakumea izateagatik? Graziarik gabeko txisteaz nekatuta zaude? Matxinatu zaitez! “Borroka-gela” egunean behin, eta aldatu zure bizitza. Ezer ez da berdina izango. Antzekoa izango da, baina askoz dibertigarriagoa. Bi emakume tipikok egunero inguratzen gaituzten topikoak erakutsiko dizkigute. Haietaz jabetzea nahi dute, aldatu eta gure bizitza hobetzeko. Zenbat eta autostimu handiagoa, orduan eta dibertigarriagoa da bizitza. Zenbat eta segurtasun handiagoa zure baitan, orduan eta zoriontsuagoa! Zure esku dago. “Borroka-gela” proba.

Dinamizazioa: Pánico Escénico

Data eta ordua: 2020ko azaroak 29
igandea 18:30ean

Tokia: Landederra polikiroldegia, Burgelu

Norentzat: Familiak eta gazteak

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Arabako Lautadako Berdintasun Zerbitzua
Burgeluko Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea, baimendutako lekua bete arte
www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Erakusketa: argazki-proiektua. Ikusgai, berdintasunaren alde!

2020ko martxoaren 8an, karpa-estudio bat jarri zen, eta herriko pertsonak gonbidatu ziren aurrera pausu bat ematera eta berdintasunaren aldeko erretratua egitera.

Dinamizazioa: “reBelando” kolektiboa, berdintasunaren aldeko mundu-mugimendu honetan parte hartzeko elkartu ziren argazkilari talde bat.

Data: 2020ko abenduaren 1etik 8ra

Tokia: Zabalarte aretoa, Agurain

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Aguraingo Udala
Arabako Foru Aldundia

Informazio +: www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

Antzerkia: "Ovarios verdes fritos"



Mastur Batetu, Cándida, doktorea identitate galera eta gernu isurietan aditua da eta "Txumino Power Revolution" programa jarri du martxan; horren arabera, buru-sabai kementsua berreraiki daiteke pelbisaren zoru indartsua oinarri izanda...



Dinamizazioa: Belén Nevado, Detritus Teatru

Data eta ordua: 2020ko abenduak 12
igandea 18:00etan

Tokia: Garaion Sorgingunea, Ozaeta

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak – kolaboratzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Barrundiko Udala
Barrundiako Feministok
Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea, baimendutako lekua bete arte
www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez
945 30 12 00
berdintasun@arabakolautada.eus

#LAIABirtuala

Berri onak! Orain, LAIAeskolako solasaldi eta hitzaldietara zuzenean eta online sartu ahal izango gara LAIABirtualan.

Jarraitu guztiak **#LAIABirtuala**-n!

Zainketaren aberastasun ikusezina

2020ko irailak 17, osteguna, 18:30etik 20:30era

Arabako Foru Aldundiaren “Pobreziaren feminizazioa: Begirada zabaltzeko diagnostikoa” azterlanaren aurkezpenean, Mendialdean, Santikurutze Kanpezun.

María Ángeles Durán, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Emakumearen Ikerketarako Institutuaren eta “Berdintasunerako politikak” UNESCO Katedraren sortzailea eta zuzendaria.

Antolatzaileak eta kolaboratzaileak: Arabako Mendialdeko kua-drilla, Kanpezuko Udala, Arabako Foru Aldundia.

#DeskonfinaChallenge

2020ko irailak 24, osteguna, 19:00etatik 21:00etara

Erronka bat izan da gure artean harremanak izatea konfinamenduan, zein deseskaladan, eta jakin nahi genuke nola egon zareten. Nola izan dira zuen harremanak? Mugikorretik, bideo-deiak? Zein indarkeria edo arazo bizi izan dituzue? Zer ikasi ahal izan dugu?.

Gai horiei eta beste askori buruz hitz egiteko, konekta zaitez!.

Ianire Estébanez, psikologo feminista.

Dinamizatzailea: Sheila Melcon, Sortzen Aholkularitzako psikologo feminista.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia.

“MADE BY WOMEN” ZINEFORUMA

2020ko urriak 6 eta 13, astearteak, filmei buruzko solasaldia



Aurreko 72 orduetan bi filmak ikusi ahal izango dira LAIAbirtuala-n erraztuko den estekaren bidez.

Manuel Iradier Afrikar Elkarateak, zinemak balioak eta sinismenak transmititzeko dituen indarrak jabetuta, bi film aurkeztuko ditu saio honetan Cine nómada-ren eskutik, afrikako zinemaren dokumentazio- eta hedapen-laborategia. Zinema-ziklo txiki honen helburura emakume afrikarra rol sekundarioetatik eta tradizioaletatik rol horren ikuspegi kritikoa izatera pasatzea da, paper independente, arduratsu eta sortzaileak irudikatuz.

Solasaldiaren dinamizatzailea: Cine nómada, Afrikako zinemaren dokumentazio- eta hedapen-laborategia.

Antolatzaileak eta kolaboratzaileak: Manuel Iradier Elkarate Afrikanista, Aiaraldeko Kuadrilla eta Arabako Foru Aldundia.

Hirigintza feminista: Genero irizpideak eguneroko espazioak diseinatu eta planifikatzeko

2020ko urriak 17, larunbata, 10:00etatik 12:00etara

Nola birpentsatu espazioen diseinua, kudeaketa eta erabile-ra modu kolektiboan. Berdintasunaren aldeko Arabako Lautadako Eskualdeko Topaketaren barruan.

Adriana Ciocchetto, Blanca Valdivia, Roser Casanovas eta **Marta Fonseca Col-lectiu Punt 6**-ko partaideak. Kolektibo horrek arkitektura eta hirigintza lantzen ditu generoaren, interseksionalitatearen, iraunkortasunaren eta parte-hartzearen ikuspegitik.

Antolatzaileak eta kolaboratzaileak: Arabako Lautadako Kuadrilla, Burgeluko Udala, Arabako Foru Aldundia.

Emakumeen borrokak Afrikan

2020ko urriak 22, osteguna, 18:00etatik 20:00etara

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillarako LAIA Eskolaren aurkezpenaren barruan.

Hitzaldiaren helburu nagusia emakumeen arteko topagune bat sustatzea da, Afrikako emakumearen egoeratik abiatuta emakumeak aintzat hartzeko balioko duena. Beren borrokak, estrategiak eta lorpenak erakusten dira; bereak protagonista diren borrokak, baina ikusezin bihurtzen direnak eta beren ahotsak isiltzen dituztenak.

Ángela Nzambi, idazlea. Afrikako Literaturen Nazioarteko Saria, errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeko Bolutariorza eta Intzidentzia arduraduna.

Antolatzaileak eta Kolaboratzaileak: Manuel Iradier Elkarte Afrikanista, Oingo Udala eta Arabako Foru Aldundia.

Elkarrizketa eta estrategia feministak. Bizitzaren jasangarritasuna pandemiatik birpentsatzea

2020ko urriak 24, larunbata, 12:00etatik 13:00etara

Añanako Kuadrillako Berdintasunaren aldeko IV. Topaketan.

Erronka askori aurre egin behar diegu bizi ditugun krisialdi ugariegatik, COVID-1aren ondorioz krisi horiek areagotu egin dira. Nola egin aurre erronka berriei? Zer estrategia feministari ekin behar zaio osasun demokratikotik, zainketaren etikatik eta bizitzaren sostenguarekiko erabateko erantzunkidetasunetik?

Carmen Castro García, ekonomialari feminista eta ekintzaile soziala. SinGENERodeDUDAS.org-ren sustatzailea.

Antolatzaileak eta Kolaboratzaileak: Añanako Kuadrilla eta Arabako Foru Aldundia.

Beste zahartzaro bat ezinbestekoa da

2020ko azaroak 10, asteartea, 19:00etatik 21:00etara

COVID19 delakoak eragindako osasun-krisian adineko emakumeek izandako esperientziei buruz hausnartzeko espazioa, batez ere pandemiak utzitako konfinamenduari eta ondoezei buruz.

Anna Freixas, idazle feminista eta emakumeen zahartzeaz arduratzen den psikologo ikertzailea.

Dinamizatzailea: Norma Vázquez, psikologo feminista.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia.



“Laudiotik Plazara”

Topaketa feministen ziklo birtuala

Hainbat gaiei buruz hitz egingo dugu: Ekonomia, zaintzak, ekologia, tratu onak, arrazakeriaren aurkako borroka, aniztasunaren aberastasuna ... krisi garai honetan goiari eusteko eta aurre egiteko gakoak bila.

Dinamizatzailea: Sonia Vargás Benito, kazetaria.

Antolatzaileak eta Kolaboratzaileak: Audioko Udala eta Arabako Foru Aldundia.

BESTE MUNDU BAT POSIBLE DA

2020ko irailak 30, asteazkena, 19:00etatik 21:00etara

Alternatiba politiko, sozial eta ekonomikoak proposatzeko, ezinbestekoa da zainketa-lanak berrantolatzea... ikusezin bihurtuta, baloratu gabe eta gehienbat emakumeek egindakoak direnak.

Yayo Herrero, ekintzaile ekofeminista eta Ecologistas en Acción taldeko kidea.

INDARKERIA MATXISTA: COVID-19AREN BESTE ERREALITATEA

2020ko azaroak 17, asteartea, 19:00etatik 21:00etara

COVID-19ak gure bizitza aldatu du, baina genero-indarkeriak bere horretan dirau. Nola eragin du emakumeen aurkako indarkerian konfinamendu aldia? Gizonek indarkeriaren aurka gehiago parte hartzeko erronkak eta gakoak.

Miguel Lorente, auzitegi eta medikuntza legalean espezializatuta, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren ordezkari ohia.

KOMUNIKABIDEEN PAPERA KRISI HONETAN

2020ko abenduak 16, asteazkena, 19:00etatik 21:00etara

COVID19 sortutako krisian, afrikarren eta afrikarren ondorengoak diren emakumeen eta gizonen irudikapenak eta ikusezintasunak aztertuko ditugu, baita zein mezu eta estereotipo transmititu diren ere.

Lucía Asué Mbomio, TVEko kazetaria. *Afrofeminas* emakume afroondorengoentzako ildoko komunitatearekin lankidetzan aritzen da.

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO



LAIA  plazara

